

GAIZKA IROZ



Ixabel Etxeberria

♦ URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

Espagn-ac

EMAZTE AUSARTA, politikari profesionala, estatuko politikaria, bere herrialdean inplikatu nahi duena. Frédérique Espagnac du izena, azken urte hauetan tokiko arazoez gogoetatu duen arduradun politikoa, Gobernuaren entzuna dena. Eskandaluaren erdian. Orain arte beste emazte bat jarraitzen ohituta ginen: MAM (Michèle Alliot-Marie); bakar batzuen aldekoa. Abertzaleekiko arriskutsua, Jon Anzarekin gertatu zenaz asko dakiena eta Euskal Herria bost axola zaiona betidanik.

Espagnac andereari beste noblezia bat ikusi zaio politika egiteko unean, bere alderdiari buruzko azalpen kritikoak entzun zaizkio. Baina, politika aitzina doa eta politikak ez du une honean bat egiten ariketa demokratikoarekin. Hain zuzen, Kolektibitatearen aldeko (Lurralde Elkargoaren) mugimenduaren interes nagusia ariketa politikoa baita, ariketa demokratikoa, interes komunaren aldeko lana, urteetako lana. Politika ez dago horretan gaur egun, aginteak gaineratzen datoz eta betetzen dira. Gaur egun sekula baino gehiago, aski da Herri Elkargoaren antolaketak nola eginak izan ziren begiratzeari horren ulertzeko.

Parisen emendakina aurkeztu da eta bozkaturik dago jada. Ikusgarria da batzuetan zein erraza den erabaki politiko baten hartzea. Noski, erabaki honek ez du Gobernuaren arriskutan jartzen, hori da garrantzitsua François Hollandaren Gobernuarentzat. Bestalde, horrek pizar politikoak eskaini dizkio alderdi sozialistari hurrengo hauteskundeetan prestatzeko. Dena garbi! Sinesten al

dugu alderdi sozialistak eta UMPk beren interes politiko propioak ahanzi dituztela adostasun politiko batera heldu direlako? Adostasun teorikoa dena den.

Politika erreala honek ez du inor pozten, baina ez du uste tokiko politikariak, Poloa delakoa martxan ematen bada kanpo geldituko direnik!

Politika erreala honek ez du inor pozten, baina ez du uste tokiko politikariak, Poloa delakoa martxan ematen bada kanpo geldituko direnik!

Lurralde Kolektibitatearen alde lanean jarraitu behar da, baita bake prozesuaren alde ere, horretan agian *Espagn-ac* andereak eragiten lagundu dezake, inguruan dituen *frantses-ac* oso errepresio zaleak badira ere. Gure erronkak anitzak baitira eta denen laguntza beharrezkoa izango da, baita politikari pragmatikoenena ere.

Lurralde Kolektibitatea aurrean dugu oraindik, Independentzia ere bai, gure borroka ez dira bukatuak, gure ingurua ezagutzen dugu eta esperantza ez dugu galtzen. Gure bidea, guk eginen dugu, ez gaituzte beti lagunduko. Frantziak ez ditu oraindik ez Polinesia, ez Kanak askatu. Hemen ere ez digute oparirik eginen. Dena den, oztopo eta politikak asko izan diren arren, guztien gaineratik jarraituko dugu. ■



**BERTSO
BERRIAK**

**Odei Barroso
Gomila**

♦

Doinua:

Harrotasunik bada.



DANI BLANCO

Ihesaldiaren arnasa

Harrotasunik bada jarrera xumea, bazterrekoa ezar dezagun gunean, eta mintzatuko da berdintasunean hitza libreki hartzen duen egunean. Unean, unean, etorkizunean... zaila baita sentitzen askatasunean zure etxea zein den ez dakizunean. (bis)

Herritarra deusezten duen gizartearen zerbait galdu ohi dugu zerbait ukatean. Erakutsi digute maitasun betean, nola argia sortzen ahal den itzalpean. Ustezko bakean gauden bitartean, aintz dabil ihesi loturik katean barroterik ez duen kartzela batean. (bis)

Zer den etxean arrotz sentitzearena edo bizi beharra munduan barrena. Denboraren joanak hau da dakarrena: bukaera ikusten dugu hastapena. Orduan zuzena badugu ordena bada kolektibo bat entzun behar dena, maitatze hutsagatik sufritu duena. (bis) ■